

jokulariak 113

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
negua 2018 invierno

BELDURRAK KUDEATZEN






113

negua
invierno
2018
Azala Argazkia
Eneko Olasagasti



07



18



08

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe n° 23 A
4° Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com
eabbilbao@actoresvascos.com
www.actoresvascos.com

Koordinazioa, edizioa
Eneko Olasagasti
Maketazioa, diseinua
Iosune Fernández
Inprimategia
Antza
LG/DLSS168/2000

SUMARIO

04	EDITORIALA Aldaketak gauzatzen	15	Sormenaren parte izan Esther Uriá
07	IKASTAROAK	16	EGINDAKO
08	Beldurrak kudeatzen Eneko Olasagasti		IKASTAROAK

Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritsi eta artikulua.
Recordad que esta revista es de todos y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

ALDAKETAK GAUZATZEN

Aurreko alean aurretik genituen garai berrietaz ari ginen eta garai horiek dagoeneko hemen daude. Ale honetan aurkezten dizuegu EAB-ren logo berria eta domeinu berriko, @euskalaktoreak.eus, helbideak. Hemendik aurrera irudi berria euskarri guztietara, Web orria, Facebook, emailak..., egokitzeko sasoian gaude. Eta berriak zabaldu, zergatik ez. Baina batez ere web orriaren birmoldaketa daukagu xede. Izandako arazoaren ondorioz aldatu ditugu lehen domeinuaren kudeaketa eta web-aren garapena zeramatzaten enpresak. Gaur egun bi arloak enpresa beraren esku egongo dira, IAMETZA. Baina hauek, nolabait, azaleko aldaketak dira. Egia esan, EAB-ren etorkizuneko formak eta egiturak nolakoak izango diren dago mahai gainean. Ausnarketa hori izkinarren bueltan zai daukagu. Eta modu batera edo bestera heldu behar diogu. Nola egingo dugun hori erabaki behar dugu hurrengo urtean. Eta horretarako eta horregatik garrantzitsua da hurrengo Batzar Nagusia.

Batzar Nagusia aldaketa eske dator. Hiru jurtakide eta Idazkari Nagusia aldatu behar ditugu. Zer esanik ez, nahi duen bazkide orok bere burua hautagai bezala aurkezteko aukera dauka. Eta Batzar Nagusi horretan ere, etorkizuneko EAB nola irudikatzen dugun jakiteko gogoeta prozesuaren oinarriak ipini behar di-

tugu. Ez dira erronka makalak ez bata eta ez bestea. Eta aurre egin behar diegu. Hain ondo geratzen den leloa gehituko diot, denon artean. Kanpora begira, jarraitzen dugu erakunde ezberdinekin harremanak izaten. Bizkaiko Foru Aldundiarekin Hitzarmen edo Protokolo bat sinatzea adostu dugu. Gauzatzeaz dago baina aurrepausu ikaragarria izan daiteke, horrek egitasmo berriak aurrera ateratzeko elkarlan estu baterako bidea irekiko duelako. Eta lehenengo "Sormenaren parte izan" Bizkaian martxan jartzea. Egitasmo honi aparteko orria eskeintzen diogu ale honetan.

Hezkuntza arloan jarraitzen dugu Eusko Jaurlaritzako Sailarekin harremanetan eta Musika, Dantza eta Antzerki Eskolak eta euren jardueraren arautuko lukeen Dekretu Berri baten zirriborroan lanean ari gara, bilera eta foro ezberdinetan presentzia edukiz eta iritziak emanez. Transizio profesionala ez dugu ahaztuta baina bide bihurriagoa dauka. Ibil beharrekoa hala ere.

HACIENDO CAMBIOS

En el anterior número del boletín anunciábamos cambios y hoy os presentamos los primeros: Nuevo logo y nuevo dominio. Lo siguiente será adaptarlos a los diversos soportes que manejamos y principalmente a la web que sufrirá algo más que un lavado de cara.

Entre los cambios tenemos en el horizonte los de la Secretaria General y tres miembros de la junta directiva. Esto será en la Asamblea General que celebraremos en febrero. Pero los cambios no pueden ser solo cosméticos, tienen que responder a un cambio interno, una evolución, un crecimiento que también tendremos que plantearnos para el año próximo.

Seguimos trabajando con las instituciones y en un futuro próximo esperamos cerrar un acuerdo con Bizkaiko Foru Aldundia que ampare un marco de relaciones y nos permita desarrollar proyectos conjuntos. Y para empezar tendríamos la implantación del proyecto "Sormenaren parte izan" en Bizkaia.

Y entre otras cosas, ya que no todas caben aquí, señalar que en Educación, estamos trabajando con el resto de agentes y el Departamento en el borrador del nuevo decreto que posibilite la reorganización de las nuevas Escuelas de Música, Danza y Teatro y su desarrollo curricular posterior.



BATZAR NAGUSIA ASAMBLEA GENERAL

Otsailak 11 Febrero DONOSTIA
16:30 San Bartolome kalekoa

Otsailak 12 Febrero BILBAO
10:30 BilbaoEszena



Egiten ari garen aldaketen fruitu, hau da gure logo berria. Eta domeinua ere aldatu dugunez hauek dira helbide berriak. Aurreko helbidera bidalitakoak helbidera berrira berbidaliko dira.

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbo@euskalaktoreak.eus
admon@euskalaktoreak.eus



CREACIÓN Y PERFORMANCE

- ▶ Espe López
- ▶ Castellano
- ▶ Baratz, Gasteiz
- ▶ Enero 26-27 y 2-3 Febrero
- ▶ 9:30-14:30
- ▶ Precio 100€ (70€ Aisge)
- ▶ eabdonostia@euskalaktoreak.eus
- ▶ 688619788.
- ▶ Fecha límite: 18/01/2019

Es un curso para nutrir la curiosidad, la búsqueda y la creación. Intentaremos conocer y entender el proceso de artistas de la performance históricos y actuales. Analizar las diferentes trayectorias y ver cómo podemos contaminar formalmente el acto teatral.

Por una parte se trata de explorar las posibilidades dramáticas de cada participante, intentando definir la poética personal, analizarla y ordenarla.

Estableceremos un espacio de búsqueda de contenidos que formen parte del universo personal y aportaremos elementos formales que sirvan para reconocer las ideas y contenidos.

Y por otra parte se trata de ver cómo estos elementos personales se entrecruzan formalmente con obras de artistas y performers para enriquecer las ideas

A menudo olvidamos que el teatro contemporáneo se ha nutrido de aportaciones de otras disciplinas artísticas.

Me interesa la idea de romper fronteras, ver cómo las ideas pueden ser tratadas de forma

diferente y que este enfoque formal modifica la manera de percibir las.

La duración del curso es de dos fines de semana consecutivos. Es un curso eminentemente práctico en el que pediremos ejercicios a realizar antes de comenzar el curso y entre los dos fines de semana.

El objetivo es el de crear un repertorio de ideas propias, un universo personal, y tener tiempo para madurar conceptos, elaborar contenidos y probar diferentes ideas formales.

Espe López

Formada principalmente en Ginebra, en la École de Théâtre Serge Martin, y con diferentes profesionales en Francia y en España. Cofundadora y trabaja como actriz en la compañía Legaleón-T Teatro desde 1986. Desde el año 1997 y hasta el momento, participa activamente en la compañía suiza L'Alakran dirigida por Oscar Gómez-Mata, girando con sus espectáculos por Francia, Suiza, Italia, España, México, Argentina, Brasil y Colombia. Colabora como actriz con otras compañías: Antzerkiola Imaginarioa (FTI) de Bilbao, y desde la dirección con la Cía donostiarra Behibi'is; Al Freskito Producciones de Málaga; Trapu Zaharra de Donosti y en Francia con la Compagnie dans le sens opposé, Le vent des signes y Zart, de Toulouse. Imparte así mismo cursos de teatro para profesionales e intérpretes en formación en diferentes centros teatrales, compañías y escuelas.



BELDURRAK KUDEATZEN

Testua eta argazkiak Eneko Olasagasti

Ez dira garai onak adierazpen askatasunerako. Tarteka hedabideetan eta sare sozialetan ematen zaigu horren berri. Gure bazkideetako batzuk ekaitza horretan harra-patuak izan dira eta bere gorputz ta arimatan sentitu dute horrek suposatzen duena. Gotzon Sanchez, Miren Gaztañaga eta Itziar Ituño. Azken biekien elkartu gara, gaur egundik, lasaitasun gehixeagorekin ikusita, nola bizi izan zuten hura kontu diezaguten. Mirenek dio bapatean aktore bihurtutik ikusi zuela bere burua. Itziar-ek, oso lotsatia izan arren, garbi asko eduki zuen aktore izan nahi zuela txiki txikitandik.

Miren - Atzera begiratzen badut... Nik jasotzen dut lankide baten dei bat programa batean parte hartzeko, irekitzen diet nire etxeko atea kazetari batzuei, bi orduz lankideak egiten dizkidan galderak erantzuten ditut. Gero montaje bat egiten du. Eta telebista baten one-ritziak ateratzen da programa. Orduan... bapatean... ikusten dut nola norbaitek material hori birmontatu duen, ikusten duzu nola ematen zaion zentzu bat zuk esan duzun horri... hartzen duela dimensio ikaragarri bat, eta esanahi bat... izoztuta uzten zaituena.

Manipulatu egin zela esan nahi duzu?

Miren - Bueno, nik uste, nire aldetik egon zela inozentzia handia. Hasteko kazetari batzuei nire etxean sartzen utzita, konfiantza emanez, hainbat gaien inguruan oso modu... ez dakit nola esplikatu...

Itziar - Arinean...

Miren - Bai, arinean, barre giroan... Baina ez nire barre giroan, beraiean barreak, beraien galderak... Ez dakit nola esan... Nik badakit zein naizen, nola hartuko dituzte serio nire hitzak? Nik badakit zer esaten dudan, nik badakit ez naizela esaten ari inor minduko duen ezer... Baina klaro, gero montaje bat egiten da. Hor zuk esan duzunaren aukeraketa bat egiten da non ez den entzuten zer esan duzun aurretik eta zer ondoren... Eta gero gainera ikusten duzu gizartean badagoela egarri bat gauza hauek aldrebes ulertzeko. Ez da berria, Gotzoni ere gertatu zitzaion eta beste hainbati ere bai, baina esaten duzu... Ai ama! Eta ikusten duzu zure burua etiketa batekin, jende askoren ahoan eta esaten duzu: ni ez naiz hori. Baina bai, bazara, hori eraiki dute zutaz eta bazara. Orduan, iristen da une bat non gogoak dituzun esateko mundu guztiari ni ez naiz hori, ez da nik pentsatzen dudana... baina amore



ematen duzu. Bere kontra ezer egiterik ez duzun monstro bat baita. Orduan pentsatzen duzu ezagutzen zaituenak badakiela nor zaren eta esaten duzu pentsa dezatela nahi dutena. Inportantea dena da jakitea zu nor zaren eta zure bide horretan jarraitzea.

Itziar - Eta sentitu zenuen beharra komunikatu bat idatzi eta sentitzen zenuena azaltzeko?

Miren - Bai... Bai, sentitu nuen beharra eta egin genuen, gainera. Nik momentuan hamar mila komunikatu bidaliko nituzke. Egia da kontextu pare batengatik frenatu egin nintzela. Baina, gero, egoera itsusitu zenean bai. Hor bai sentitu nuen beharra eta... "Isilik egon naiz orain arte, hau da nik pentsatzen dudana, hau da kontextua, eta ya...". Ez nuen ezer gehiago esan. Hor negoen ni, nik esandakoa, baina hor atzean persona gehiago daude.

Mirenen kasuan programa batean esandako zerbaitengatik izan zen baina zurean, Itziar, ez, zurea izan da zuk jarrera bat azaldu zenuelako gizartearen zegoen arazo baten aurrean.

Itziar - Bai, pentsamendu batengatik eta kriterioa edukitzeagatik kasu batzuen aurrean eta momento batean inplikatzegatik, arazo hoietan... Eta espero nuen. Nik ikusi nuen Mirenena, eta ezagutzen nuen Gotzonena... Eta proposatu zidanetean Espainiara lanera joatea bai pasatu zitzaidan burutik... Ostras! Ni, bai inplikatu naiz eta ez naiz ezkutatu momento askotan... Eta horregatik gertatu zen... Zer geratu zen? Ba hori, ez dagoela adierazpen askatasunik...

Eta zure kasuan, zuk uste duzu bilatua izan zela?

Itziar - Nik uste dut badagoela alde ilun bat, Star Wars-en esaten den bezala, ea nondik... zai dagoena, etsai bila, etsai bat behar dute hari kaka guztia botatzeko. Eta kasu honetan, nik uste, euskaldunak izateagatik, herri honetakoak izateagatik izen dela. Ez da hemen gertatu bakarrik, beste leku batzuetan ere bai. Ibili dira etsai bila eta orain, klaro, ikusentzunezkoetan, sareetan agertzen dena... Oso erraza da hori, topatzea nor den nor eta zelan erasotu...

Miren - Oso ahulak gara zentzu horretan... Eta zure irudi bat eraikitzen da...

Itziar - Baina oso larria da kontua. Askotan pentsatzen dut ez diogula behar duen garrantzia ematen. Ezin dugu adierazi pentsatzen duguna. Balantzaren beste aldean dagoelako lan barik geratzeko aukera. Eta hori oso larria da. Beti egon da hor. Orain larriago? Ba, ez dakit... Arriskutsuago da sarengatik.

Miren - Ezin duzu adierazi pentsatzen duzuna, ezin duzu gag bat egin.

Itziar - Según ze gag... Beste batzuk bai.

Miren - Hori da...

Itziar - Euskaldunoi barre egiteko bada, hori bai, askatasun osoz. Badagoz hor neurgailu ezberdinak, ierarkiak. Nik pentsatzen dut aurrean daukaguna monstro erraldoia dela.

Eta zein da momento horretan sentipena? Bakarrik sentitzen zara?



Miren - Beldurra... Eteten zaizu arnasa bapatean... Trending Topic! Ezin dut sinistu hau gertatzen ari zaidanik, neuri.. Eta beldurra, beldurra... Nire kasuan hasieran haserre... Eta nik, gainera, deiak jaso nituen.

Mehatxuak...?

Itziar - Ez. Jokoa zegoen proiektuaren arduradun batzuenak... katearena... Azalpen eske. Arazoa neu izango banitz bezala ta ez dena montatzen ari ziren energumeno horiena. Momentu batean, nik uste beldurtu egin zirela eta eurena babestu nahian nik sentitu nuen nire gaisetik pasa zirela. Eta galdera ezgokiak egin zizkidaten, ideologiari buruz...

Miren - Ze gauzak... Entzuten dizut zuri eta ateratzen zait: Itzi, agian hau ez zenuke esan beharko.

Itziar - Bai, niri ere bai...

Azkenean hori lortzen dute. Geure burua auzotzentsuratzea lortzen dute.

Miren - Nirekin lortu dute. Nik momentu honetan aukeratzten dut, eta badakit putamierda bat dela, ez adieraztea horrek ekarri ahal dizkizun arazoengatik. Eta ez da Juana de Arco baten erabakia, ez da ausarta... Ba, sentitzen dut. Badago puntu bat, nik ikusten dudana nire burua batzutan, eta nahiago dut isildu.

Eta hori zergatik da? Momentu horretan bakarrik sentitzen zarelako?

Itziar - Isildu egiten zara, ni behintzat... orain bai planteatzen

dut, ostras, honetan inplikatuko naiz, bai ala ez...? Lehen ez nuen egiten. Euskal Herrian lan egiten dut, pentsatzen nuen, eta ez dut beldurrik. Hemengo arazoak neureak ere badira eta... Hau eta bestean azalduko naiz, neuk gura dudalako. Orain bai, planteatzen dut. Hortik pasatua naizelako eta badakidalako ez dagoela hori aldatzerik. Konturatu naiz oso gatxa dela. Legeak sortzea hori babesteko? Zelan probatzen duzu plataforma batek edo kate batek ez zaituela sekulan gehiago deituko, zuk botatako iritzi batengatik? Edo programa batean azaltzeagatik hau eta bestea esaten? Nork babestuko zaitu hor, nahiz eta sindikatoaren babesia eduki, jendearen babesia, arloaren babesia? Gero, ostras, egia da lan barik geratu ahal zarela... Ez dakit zelan azaldu.

Hori, momentu horretako beldurra izan zitekeen baina denbora pasa da eta biak zaudete produktora berdinekin lanean.

Itziar - Nirea beste produktora bat da. Netflix. Bueno, badituztut detaile batzuk esaten didatena ez dela hutsalala izan, eduki zuela bere pisua. Ez dakit... Bestetik, orain, La casa de papel-en arrakastagatik, biderkatu egin zaizkit jarraitzaileak. 900 mila dauzkat. Orduan hori botere bat bihurtu da. Nik ipini nuen zapi bat, Argentinako abortuaren aldekoa, eta kriston txolopotea sortu zen, batzuk super alde, beste batzuk hiltzailea nintzela... Argazkia jartzerakoan sentitu nuen hemen ezinegon txiki bat, baina egin nuen zasl! Aurrera. Eta gero zai egon nintzen eta ikusi nuen zelakoa sortu zen... Hori



ere igual bada bide bat gauzak aldatzen joateko baina... Ez dakit nola esan... Eman behar dizu apur bat berdin. Oso personala da hori neuretzako, oso.

Zure kasoan produktora berdina da.

Miren - Bai, produktora berdina da. Eta akordio batetara iritsi gara trankil eta ondo lan egiteko.

Barkamenik eskatu dizute?

Miren - Ba... Bai hitzegin nuen zuzendariarekin, bai egon zen, ez dakit nola esan, birbalorazio bat, eta bai sentitu nuen bere partetik, zuzendariaren partetik, damu bat eta gauzak beste modu batera egin zitezkeela.

Eta Lankideen aldetik?

Miren - Gertutasuna sentitu dut orain itzulitakoan... Batek baina gehiagok esan dit pozten dela ni bertan egoteaz. Bai.

Itziar - Nik ere biena. Produktorarena, produktora txiki bat da, eta lankideena ere bai. Biena. Kanalarena ez. Dirua, diru jartzailearena ez.

Miren - Nik, hasieran, produktorarena ba..., baina gero bai egon zen momento bat non sentitu nuen bidea errazten ari zirela. Egon zen negoziazio momento bat zailagoa izan ahal zena eta derrepente sentitu nuen bagoela bai zuzendariaren aldetik eta bai produktorearen aldetik bidea errazteko jarrera bat.

Ez duzue uste hau betiko kontu bat dela? Artistaren konpromezuarekin lotuta doana? Azken ba-

tean gure lana jendeari zuzenduta dago, historiak kontatzen ditugu, ausnartzen dugu gizarteaz...

Miren - Hor badago puntu bat... Adibidez... Guk aktoreek daukagun bizimodua... guk aukeratu dugu prezipizioan bizitzea bai ekonomikoki, bai pertsonalki..

Itziar - Emozionalki...

Miren - Oso agerian ipintzen gara... Gainera, ematen du ez dela nahiko zure pertsonaia egitearekin, zure iritzia eman behar duzula hemen eta han, honi eta besteari buruz. Egon behar duzula irratsaio honetan eta telebista saio horretan, soldata irabazi gabe, eramaten zaituztela eta, zergatik hau eta zergatik bestea galdetuz, betetzen dituzula parrilak aktorea zarelako. Eta gainera iritsi zaitezke sinisterra hori zure lanarentzat ona dela. Nik, adibidez, saio hartarako deitu zidatenean pentsatu nuen hori. Badago zerbait hor atzean gezurra dena. Batzutan pentsatzen dugu zenbat eta gehiago egin hobea dela. Kaka zaharra! Badago puntu bat pentsatzen duzuna: utz gaitzue pakean! Nik gauza bakarra dakit: nitaz aparte hor bazeuden beste batzuk eta ez zituzten euren ardurak hartu...

Itziar - Eta Urkuilu... "Hago mia la afrenta..." esanez. Non dago Eusko Jaurlaritzaren babes? Bere aktoreei eta adierazpen askatasunari eman behar dien babes?

Miren - Zer gertatzen da hor? Agerian gu gaudenez besteak ez dira haien arduren jabe egiten.

Eta ETB-ren aldetik?

Miren - Bere garaian EAB eta produktorearen eskutik joan ginen irudi garbiketa bat eskatzera eta zuzendari-



tzaren aldetik fotokopia batzuk jaso genituen "ahantzuraren eskubidea" lantzen zuten empresa batzuen izenekin. Eta nik esan nien: hau ez da niretzako, hau zuentzako da, zuek ordaindu, zuen ardura da. Baina ez zuten ardura bere gain hartu. Orain azkenean lortu dut. Anjel Alkainen eskutik, Amaia Ocerinen laguntzaz. Poliki dihoa baino... Kostata halere...

Kuriosoa da, nolabait esatearren, gai honek gaur egun hartu duen garrantziarekin... Azken batean geure buruekin jokatzeko dugu, gainikusgarritasun batean bizi gara... Kuriosoa dela esan nahi nuen ze jende gutxi eman zuen izena Sare Sozialei buruz antolatutako genituen ikastaroetan.

Itziar - Debebatuta egon egon beharko litzateke jendea Sare Sozialetan dituen jarraitzaileen arabera neurtuta izatea. Esaterako, 25 mila jarraitzaile izatea kastiña egin ahal izateko. Hori gertatu izan da.

Miren - Bai...?

Itziar - Hasi dira eskatzen. Legeren bat egon beharko litzateke hori ekiditzeko edo gu babesteko, ez dakit... Erakunde gehiagok esku hartu beharko luke, zeren oso larria da.

Legeak baino ez al da gehiago oihaneko legea nagusitzen ari?

Itziar/Miren - Totala... Momentu honetan bai... Ez dago legerik... Ez dago mugarrik... Inondik ere ez dago...

Itziar - Niri jausi zitzaidan publizitate bat Estatu Batuetan

ikusi zutelako boikotarena. Eta aurrera zihoan baina... Azkenean nire managerrak dei bat jaso zuen esanaz ez zutela persona konfliktiborik gura. Hori izan zen arrazoia. Eta adibide gehiago ditut Markek egiten dituzten eskeintzen inguruan, zure profila haien mesederako erabiltzen uzten baduzu. Niri ez baina lankideei egin dizkiete.

Gaur egun bizi dugun egoerari begiratzea besterik ez dago. Aste honetan bertan Dani Mateorena. Willy Toledok Herrialdez aldatu behar duela esan diguzu lehen, Itziar.

Itziar - Lan egiteko, bai...

Valtonyc, Hasel... Ze gertatzen ari da?

Miren - Larria da, oso larria.

Itziar - Julio Medem-i ere gertatu zitzaion. Ez da berria, beti pasa izan da. Igual orain larriagoa da?

Miren - Ageriago gertatzen ari delako beharbada.

Itziar - Sarean gelditzen da eskegita eta ezin duzu ezer egin. Hori ez dago ezabatzerik.

Horren atzetik ez al dago hori onartzen duen gizarte bat?

Miren - Dudarik gabe. Eta gu gara horren parte ere bai. Zeren nik ere sare sozialak erabiltzen ditut. Egia da hor norberak egin beharko duela bere ausnarketa. Nola erabiliko dituen, kontziente izan zer gertatzen den. Baina ez dakit hori menperatu daiteken zerbait den. Ez dakigu manejatzen munstro hau.

Baina munstroa non dago sare sozialetan ala gizar-tean?

Miren - Gizartean... Guk barruan daukagun munstroa da baita ere. Gu gara gizar-tea azkenean.

Itziar - Zer da garratzitsuen? Saltzea, eta gu horretarako baliatu nahi gaituzte.

Zuk, Itziar, txanponaren bi aldeak ezagutu dituzu. Alde gozoa baita ere

Itziar - Ni alde gozoan nago baina ikusten dut iluna ere bai.

Baina zuk orain daukazun botere edo ikusgarritasun hori erabili dezakezu ere bai?

Itziar - Bai, zapiarena bezala. Lagun batek esan zidan: Itziar, zuk hartu boterea eta gero bota iritziak. Eta egia da. Besteek daukate boterea eta guk ez. Ba, gu persona publikoak gara, ikusgarritasuna daukagu, hori ere erabili ahal dugu gure alde, eta batzutan gizar-tearen alde, uzten badigute. Baina bere alde txarra ere badaukat. Egiten edo esaten duzuna Plataforma edo produktora baten gustokoa ez bada lanik gabe gera zaitzke. Eta sekula ezingo duzu probatu horregatik denik.

Beldurraren pean bizi gara beraz?

Miren - Beldurra kudeatzen bizi gara. Saiatzen gara bel-durrak ez jatea. Baina bestalde esango balidate: Miren zuk hau gertatzea nahiko zenuke? Ez ta pentsatu ere erantzungo nuke. Baina, orain, behin dena bizita, ez dut esperientzia hau inork kentzea nahi. Nire bizitzaren parte da, pila bat ikasi dut horri esker eta opari asko ere ekarri dizkit. Handik oso gutxira bi kastin egin nituen, kriston indarrarekin, nire burua reibindikatu. Ni aktorea naiz eta hemen nago.

Honek, nolabait, bagarela adierazten du. Ez bagina inork ez liguke jaramonik egingo. Kolpeak jasotzeko bada ere.

Miren - Iguar bada gure buruari txalo bat emateko modukoa ere. Honek erakusten du Euskal herrian aktore harrobi oso on bat dagoela, bere lanean oso inplikatu dagoen jendea, gure ofizioa asko maite dugula eta hor indar handia dagoela. Egia da gero ahal duguna egiten dugula, zeren kontextu sozial honetan asko erortzen zaigu gainera, hostia asko jasotzen ditugu, baina asko maite dugu ofizioa eta asko ematen diogu.



(Ezkerretik eskubira) Itziar itüño, Mikel Laskurain, Esther Uría, Ramon Barea, Iraia Elias, Ramón Agirre (Zinemira Saria 2018), Klara Badiola, Eneko Sagardoy, Miriam Martín, Mario Pardo eta Miriam Cabeza



Oriarte Ikastetxea DBHI
Zuzendaria: Jon Ander Alonso
Aktoreak: Esti Curiel, Adriana Salvo,
Libe Mendizabal, Amaia Irazabal,
Barbara Rivas, Esther Uri
Bidebieta Ikastetxea DBHI
Zuzendaria: Eneko Olasagasti
Aktoreak: Judith Lorenzo, Xabi
López, Eriz Alberdi, Naiara Arnedo,
Ainhoa Alberdi

SORMENANEN PARTE IZAN

Hirugarrenoz, udazken honetan ospatu dugu “Sormenaren parte izan” egitasmoa Lasarteko Oriarte ikastetxean eta Donostiako Bidebieta Institutoan. Ondo eta arraskatsu ospatu ere. Dagoeneko ekimen finkoa bihurtu da gure zereginen barruan eta baita boletin honetan ere. Aurtengoan bi alditan egin dugu. Bata udaberrian eta bigarrena udazkenean. Datorren 2019an bi txandatan egingo dugu ere. Oraindik erabakitzeko badago ere zein ikastetxetan eramango dugun aurrera. Baina ez gara horretara mugatuko bakarrik. Bizkaia ere zabalduko baitugu. Bizkaiko Foru Aldundiarekin egin dugun harremanak fruituak eman ditu eta onartu egin digute egitasmoa Bizkaian ere garatzearen proposamena. Bertako bi ikastetxerekin harremanetan gaude eta martxoan eramango dugu aurrera. Hain zuzen ere, martxoaren 12tik 29ra. Izango duzue gure berri. Jaki-

zue talde bakoitzean bost aktorek hartzen duela parte. Beraz hamar laguntzako eskeintza egingo dugu. Zuzendariak, koordinatzaile pedagogikoa eta ekoizpen arduradunetz gain.

Segidan azken txandako ikasle batzuen gogoetak ipintzen dizkizuegu adierazgarri gisa.

“Oso oso ona. Asko gustatu zait, nahiz eta gauza ez oso politak gogoratu ditudan. Baina ondo etorri zait. Ondo portatu dira nirekin. Oso handiak zarete”.

“Guk lehenengo saioan egin genituen argazkietan eta esaten genituen gauzetan inspiratu dira”.

“Gauzak ikasten dituzu, batez ere zer ez duzun egin behar. Jendearekin erlazionatzen zara”.

“Eskerrak eman nahi dizkizuet denei, benetan. Bizitza aldatu didazue”.

Esther Uri Koordinatzaile pedagogikoa



TRABAJO CON LA DIRECTORA **NELY REGUERA**

Siempre se hace difícil resumir en unas pocas líneas lo compartido, trabajado y disfrutado durante un curso monográfico.

Primero, porque cada uno de los participantes, ponentes, técnicos y organizadores llevamos nuestra historia y nuestro presente profesional y personal en nuestra mochila; y cada uno, por tanto, saca y aprovecha posteriormente el producto de sus propias conclusiones. Y segundo, porque a veces la experiencia es tan intensa en tantos sentidos que no se sabe qué priorizar e incluso cuesta discernir cuál es siquiera la propia conclusión.

Al final ésta es una revista de profesionales del gremio, así que, si alguien lee este articulo será de recibo abordarlo desde ese punto de vista: el profesional, ¿no? O quizá podamos jugar a un juego.

¿Qué somos los actores sino niños y preadolescentes disfrazados de adultos intentando querer descubrir quiénes somos jugando a ser otras personas?

Pongamos que cada participante resuma en una palabra lo vivido ese fin de semana, y subamos la apuesta haciendo a una persona responsable de unir todas esas ideas, plasmarlas en un papel y entregárselas a EAB.

Pues eso es lo que está leyendo, caballero/señora/señorita/etcétera.

La palabra juego queda por tanto claro que ha estado muy presente. Y para que este juego pueda fluir, sin miedo a caer, con red, y sin temor a ser juzgad@ tanto dentro como fuera del trabajo con las secuencias, debe existir un clima de confianza.

solo uno de nosotros no se hubiera entregado a hacer lo mejor posible su trabajo en cada una de las secuencias, la sensación habría sido otra muy diferente. Y es que es difícil a veces abstraerse, ver lo positivo y tratar de dar lo mejor de sí mismo. Pero creemos que lo hemos conseguido. Hemos sido un humilde ejemplo de entrega.

Y eso es consecuencia del compañerismo. Da gusto poder pasar las secuencias delante de otros compañeros mientras otros están grabando y recibir y dar indicaciones siempre desde el respeto y desde lo que crees que puede ser útil. Da gusto el respeto que cada uno de nosotros mostraba hacia el trabajo ajeno. Da gusto compartir comida. Da gusto compartir charla. Da gusto compartir descansos. Da gusto compartir silencios. Da gusto compartir vino chungo prestado.

Y todo esto no puede ser posible sin ayuda. Sin la ayuda de Nely. Cercana, humilde, honrada, honesta, sin delirios de grandeza, sin verdades absolutas, buena pedagoga. Resolviendo lo que para ella también era un reto: rodar cinco secuencias en tiempo récord, buscando localizaciones, de una manera digna y con una recua de actores-sinvergüenzas a los que conoces tan solo de unas fotos en algún caso desfasadas y con los que no has hablado ni compartido pareceres y que han recibido su escaleta un par de días antes. Acercándose de manera franca y respetuosa. Diciendo la verdad, haciendo el curso muy útil para nosotros, siendo clara, escuchando y hablando. Sin hacer uso de Mr. Wonderful ni tampoco de la magnificencia y todopoderosidad que a veces encuentras en algunos director@s. Para ser el primer curso que das para actores (se dedica a docencia en materia de dirección), "no ha estao mal", chiquita.

Transparente. Y es que los grandes normalmente son buenas personas.

En resumen, ha sido todo muy intenso, ha sido una experiencia muy positiva para todos, actuarmente otro reto, un gustazo trabajar con una directora así, y un placer poder hacer todo esto en el entorno de una casa rural de Alonsótegui que permite aislarse y trabajar a tope.

Gracias Miriam, gracias Txober (hay que estar tarao y ser muy bueno) por aguantarnos.

Judit Lorenzo, Amaia Ruiz de Galarreta, Amaia Irazabal, Leticia Etala, Maien, Barbara Rivas, Iñigo Sbelta, Paula Salinas, Gabi Reig, Ana Furones, Elena Vivanco.

No sabemos si esa confianza ha sido fruto del hecho de hacernos a la idea de convivir dos días (pernoctando o no), de la costumbre esa tan sana que tenemos los actores y directores de trabajar cada día con gente a la que no conocemos de nada, o de las extrañas redes que nos unían y hemos ido descubriendo poco a poco (estábamos destinad@s a conocernos chic@s), pero hemos juntado nuestros engranajes hasta convertirnos en ese poquito tiempo y de manera efímera en un Equipo.

Lo que envidia cuando veo jugar a equipos de baloncesto es que a pesar de la tontería relativa que es meter una pelotita en un aro con una redecilla, todos los jugadores se matan para meterla el mayor número de veces posible para ganar el partido. Si en este fin de semana tan



LA COMEDIA NO MATA, SOLO ENGORDA EL ALMA

¿Alto o calvo? ¿Un cura amigo de la buena mesa? ¿Todo es una mierda? ¿Tienes un abuelo nacionalista? ¿Eres dietista para personas obesas? ¿Te pierdes en tu casa? ¿El mundo te enfada? ¿Te equivocas al leer en alta voz pero te ríes? ¿Eres más infantil que una gorra a cuadros?

Todos estos personajes se reunieron en el local de EAB, que bien podrían ser las siglas del Sindicato de Camareros Aspirantes a Actores Vascos. ¿? Creo que ha habido demasiada premisa y no se ha pillado el chiste.

Nos reunimos para participar en el curso de Monólogos cómicos impartido por Manuel Feijoo, un auténtico "compañero" que ha terminado siendo un "colega". Empezó recibiéndonos con un ¡Cómo están ustedes! Y contestamos ¡En paro! Pues: ¡Autoempléate! ¡Hazte monologuista cómico!

Y Manu nos abrió el camino hacia el Stand Up Comedy (la AB no tiene remedio) y de su caja (torácica) sacó las herramientas para empezar a crear.

Creamos, reímos, escribimos y reescribimos. Quizás este curso nos ha dejado un poco majaretas, majaretas guais, hemos hecho el ganso, mucho pero sanamente, nos hemos sentido desnudos aunque fuéramos vestidos, y a veces un poco perdidos aunque sabíamos dónde estábamos. ¿Lo sabíamos? Lo que sí sabemos es que hemos sido valientes y nos sentimos orgullos@s, unos auténticos funambulistas del humor con Manu haciendo de red. Ahora nos toca salir al ruedo, coger el toro por los cuernos y como diría Buzz Light Year: ¡Hasta el infinito y más allá! Hambrientos de humor. Que no pare la fiesta.

Amarás al humor sobre todas las cosas y al público como a ti mismo... a estos últimos un poco menos.

La comedia no mata, solo engorda el alma y ayuda a sobrevivir sin Almax.

Mai Vazquez, Humberto Gutierrez, Vega Iguaran, Iban Pascual, Jon Zubiaga, Olatz Pagalday, Natxo Val, Eriz Alberdi, Elisabete Hernandez León

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO DITUZUN ZERBITZUEN DESKONTUAK

SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION

GIPUZKOA

Academia de idiomas OUI	20%	www.academiaoui.com
Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta	15%	www.mikelmartinez.net
Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel	15%	ainhoexki@hotmail.com
Tai Chi Chuan Eskola	15%	www.taichichuaneskola.com
Videos Zazpiterdi	15%	http://zazpiterdi.com/es
Videos Zumeta	15%	www.zumetavideo.com

BIZKAIA

Coach Yannick Vergara	20%	yannickv@hotmail.com
Librería de Artes Escénicas Yorick	5-15%	www.libreriyorick.com/teatro/
Maquillaje profesional Alicia Suárez	15%	www.aliciasuarez.net
Peluquería Glamuforia	15%	es-es.facebook.com/glamuforia
Videos Yolanda López de Heredia	15%	yolandalzhheredia@gmail.com

ANTZOKIKO DESKONTUAK

Alegria Dulantzi	0% <small>Precios populares</small>	www.alegriadulantzi.com
Arriaga Antzokia	25%	www.teatroarriaga.com
Barakaldo	50%	www.teatrobarakaldo.com
Donostiako Antzokiak	10%	www.donostiakultura.com
Elorrio	50%	www.arriolaka.eus/es
Gasteizko Antzokiak	20%	www.principalantzokia.org
Lobiano Kulturgunea (Ermua)	25%	www.ermua.es
San Agustin Aretoa (Durango)	25%	www.durango-udala.net/sanagustin
Oreretako Kulturgunea	10%	www.errenteria.net
Zornotza Aretoa	25%	www.zornotzaaretoa.net
Zumaia	50%	www.zumaia.eus/es

